



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko uztailaren 23a

3. ZK.

A U R K I B I D E A

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatzan eta gaitzesten ditu pasatu berriak diren sanferminetan izandako sexu indarkeriako kasu guztiak, eta bere babesan adierazten die eraso horien biktimei. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesan eta elkartasuna adierazten die 2019ko uztailaren 8an Zidakos ibaiaren arroan izandako uholdeek kaltetutako pertsona eta entitateei. Eledunen Batzarrak onetsia (2. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du herritarren ordezkariak ekitaldi publiko ofizialak baliatuta legea urratzeko eginiko edozein ahalegin. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Miguel Ángel Blanco eta haren familiarekiko oroitzenarekin, bai eta Espainia osoan egiten ari diren manifestazio eta omenaldi ugariekin ere. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak LGTBI pertsonen berdintasun soziala eta diskriminaziorik eza aldeztu du. Eledunen Batzarrak onetsia (4. or.).
- Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabat gaitzesten du uztailaren 6tik 7rako gauean Iruñean izandako sexu eraso, eta berresten du errefusatu egiten duela Nafarroan gerta daitezkeen eraso, indarkeria nahiz jarrera sexista oro. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

- Batzorde Iraunkorraren erabakia, batzorde bakoitzaren kideen kopurua ezartzen duena (6. or.).
- Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsaria, 2019ko uztailaren 1etik aitzineko ondorioekin (7. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko eta gaitzesten ditu pasatu berriak diren sanferminetan izandako sexu indarkeriako kasu guztiak, eta bere babesa adierazten die eraso horien biktimei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak errefusatzeko eta gaitzesten ditu pasatu berriak diren sanferminetan izandako sexu indarkeriako kasu guztiak.

– Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten die eraso horien biktimei, bai eta beren familia eta lagunei ere, eta haien pribatutasunerako eskubidea errespetatzen du, biktimen birbiktimizazioa saiheste aldera.

– Nafarroako Parlamentuak uste du eraso horiek ez direla modu puntual eta isolatuan gertatzen, baizik eta emakumeen aurkako diskriminazio eta indarkeriazko eguneroko testuinguru baten zati direla, eta horren aurka era sistematiko eta orokorrean jardun behar dela.

– Nafarroako Parlamentuak konpromisoa hartzen du Nafarroako gainerako erakunde publikoekin, mugimendu feministarekin eta herritarrekin batera lanean jarraitzeko, emakumeen aurkako sexu indarkeria eta emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozial guztiak desagerrarazteko.

– Nafarroako Parlamentuak aldeztu du berdintasuna erdigunean jarriko duten politika publikoak sustatzea, desberdintasunen amaierara eramanez gaituztenak, eta berdintasunaren kultura sortzearen eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitza lortzearen alde agertzen da irmoki”. (10-19/DEC-00040).

Iruñean, 2019ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bere babesa eta elkartasuna adierazten die 2019ko uztailaren 8an Zidakos ibaiaren arroan izandako uholdeek kaltetutako pertsona eta entitateei.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak bere babes eta elkartasun osoa adierazten die Zidakos ibaiaren arroan 2019ko uztailaren 8an izandako euriteak Nafarroako erdialdean eragin zituen uholdeek kaltetutako pertsona eta entitateei.

2. Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten dio uholde horien ondorioz Ezporogin hildako gaztearen familiari.

3. Nafarroako Parlamentuak uste du beharrezkoa dela erakunde eskudunek lehenbailehen ebaztea babes zibileko larrialdi batek larriki ukitutako eskualde horretako eskabideak; hain zuzen, Barasoain, Beire, Ezporogi, Garinoain, Leoz,

Lerga, Murillo el Cuende, Erriberri, Orisoain, Piti-llas, Puiu, Zare, San Martin Unx eta Tafallako udalek aurkeztuak.

4. Nafarroako Parlamentuak Gobernu zentralari eta Nafarroako Gobernuari eskatzen die arin konpon ditzaten gertaera honen ondorioaz ondusun publikoetan izandako kalteak eta, beharrezkoa bada, aurrekontu-kreditu bereziak gaitu ditzatela xede horrekin.

5. Nafarroako Parlamentuak bere aintzatespena adierazten die zerbitzu publikoetako langile guztiei, bai eta uholdeak gertatu ziren arratsaldetik bertatik eskualdeko egoera normaltasunera itzul zedin eta bertako bizilagunek jasandako kalteak konpontzen elkertasunez lanean aritu diren boluntario guztiei ere” (10-19/DEC-00041).

Iruñean, 2019ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du herritarren ordezkariak ekitaldi publiko ofizialak baliatuta legea urratzeko eginiko edozein ahalegin.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du herritarren ordezkariak ekitaldi publiko ofizialak baliatuta legea urratzeko eginiko edozein ahalegin, are gehiago legea urratzeko ahalegin hori indarkeria-ekintzaz lagunduta egiten bada, ordezkari demokratikoen eta agintaritzaren agenteen aurkako hozkaka, ostikoka eta kolpeka.

– Nafarroako Parlamentuak gaitzesten du pertsona batzuek, gune publiko masifikatuetako inpu-

nitatearen babesean, kargu publikoen aurka gauzatzen duten hertsapena, hitzezko indarkeria eta indarkeria fisikoa erabilia.

– Nafarroako Parlamentuak bere babes osoa agertzen die kargu publiko guztiei, bereziki Iruñeko Udaltzaingoko gizon eta emakumeei, ordenamendu juridikoa eta ordena publikoa modu eredu-garrian betearazteagatik, beren integritate fisikoa arriskuan jarrita ere” (10-19/DEC-00042).

Iruñean, 2019ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Miguel Ángel Blanco eta haren familiarekiko oroitzenarekin, bai eta Espainia osoan egiten ari diren manifestazio eta omenaldi ugariekin ere.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak:

1. Bat egiten du Miguel Ángel Blanco eta haren familiarekiko oroitzenarekin, bai eta xede horrekin Espainia osoan egiten ari diren manifestazio eta omenaldi ugariekin ere.

2. Estimua eta errekonozimendua adierazten die ETAREN terrorismoaren biktimak guztiei, askatasunaren eta zuzenbide estatuaren defentsaren ordezkari baitira.

3. Terrorismoaren eta ETA banda terroristaren indarkeriaren arbuioa eta gaitzespena berresten du.

4. Errefusatzen du ETAREN eta bere hurbileko erakundeen indarkeria terroristaren kontakizuna berriatzi eta zuritu nahi duten guztien ahalegina. Halaber, justifikaziorik gabe errefusatzen du banda terroristarekin harremanik izan duen edozein pertsona goretzi eta omentzeko ekitaldi oro.

5. ETAREN terrorismoarekin loturiko sare osoaren laguntza exigitzen du, beren esku dagoen eta argitu gabeko atentatuak argitzeko beharrezkoa den informazio guztia eman dezan” (10-19/DEC-00043).

Iruñean, 2019ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak LGTBI pertsonen berdintasun soziala eta diskriminaziorik eza aldeztu du.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du:

1. LGTBI pertsonen berdintasun soziala eta sexu-joera, genero-identitate edo genero-adierazpenagatiko diskriminaziorik eza aldeztu ditu; izan ere, eskubide horien aldeko borroka eta talde horrek lorturiko konkista sozialak gizarte osoaren helburu dira, eta ez ideologia edo alderdi politiko baten ondare.

2. Errefusatzen du ideologia, iritzi edo ideia politikoengatiko bazterkeria- eta diskriminazio-molde oro, are gehiago Harritasunaren Egunekoak bezalako ekitaldietan gertatzen bada, ekitaldi horien oinarri baitira berdintasun, aniztasun, inklusio, errespetu eta tolerantziaren printzipioak” (10-19/DEC-00044).

Iruñean, 2019ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak erabat gaitzesten du uztailaren 6tik 7rako gauean Iruñean izandako sexu eraso, eta berresten du errefusatu egiten duela Nafarroan gerta daitekeen eraso, indarkeria nahiz jarrera sexista oro.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“Nafarroako Parlamentuak adierazten du:

– Erabat errefusatzeko du Iruñean salatutako sexu eraso eta erabateko babesa eta elkartasuna agertzen dizkie emakumeari eta bere inguruenari, bai eta bere eskubideak eta intimitatearekiko erabateko errespetua ere.

– Errefusatzeko du gure gizartean gerta daitekeen eraso, indarkeria nahiz jarrera sexista oro, eta konpromisoa hartzen du emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazten, segurtasuna hobetzen eta emakumeek ingurune orotan askatasun osoa baliatu ahal izatea bermatzen laguntzeko.

– Adierazten du beharrezkoa dela egungo kultur ereduaren aldaketa ahalbidetzea eta babestea; izan ere, egungo ereduaren erasotzailea babesten da eta emakumea errudunesten da.

Halaber, gizonei konpromiso bat eskatzen die eraso eta indarkeria ororekin amaitzeko eta gure gizartean egiazko berdintasuna lortzeko lan egiteko.

– Herritarrei gonbit egiten die ez daitezen ezer egin gabe gelditu emakumeen aurkako indarkeriaren eta erasoaren aitzinean, eta erreklamatzeko emakumeek beren harremanei, gorputzari eta sexualitateari buruz erabakitzekeo eskubidea dutela.

– Berresten du sexu erasoaren aurkako borroka-errekiko konpromisoa eta apustu egiten du emakumeentzako hiri aske baten alde, non askatasunez bizi daitekeen.

– Halako gertaeren informazio-trataeran ardu-raz eta zuhurtasunez jokatzeko dei egiten du” (10-19/DEC-00045).

Iruñean, 2019ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

Batzorde Iraunkorraren erabakia, batzorde bakoitzaren kideen kopurua ezartzen duena.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrek, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Erregelamenduaren arabera prozesua gauzatu ondoren, Legebiltzarrean bost talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarte bat eratu dira. Horiek guztiek eskubidea eta betebeharra dute beren kide kopuruaren arabera batzordeetan ordezkatuta egoteko, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 29.4 eta 45.1 artikuluetan nahiz askotariko talde parlamentarioaren jarduna eta antolaera ezartzen dituen Lehendakartzaren 2007ko ekainaren 22ko Erabakiko 3. artikuluan xedatuari jarraituz. Hori horrela, Zerbitzu Juridikoek txostena egin eta Batzorde Iraunkorreko eledunek erabaki loteslea hartu ondoren, hona ERABAKIA:

1. Ezartzea Nafarroako Parlamentuko batzorde arruntak osatuko dituzten foru parlamentariak hamabost izanen direla.

2. Batzorde arrunt bakoitzeko kideen guztizko kopurua honela banatzea talde parlamentario eta foru parlamentarien elkarrearen artean:

Navarra Suma	6
Nafarroako Alderdi Sozialista	3
Geroa Bai	2
EH Bildu Nafarroa	2
Nafarroako Ahal Dugu.....	1
Izquierda-Ezkerra talde mistoa.....	1

3. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2019ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren ordainsaria, 2019ko uztailaren 1etik aitzineko ondorioekin.

Nafarroako Parlamentuko Batzorde Iraunkorrek, 2019ko uztailaren 18an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontu-hartzailletza eta Gai Ekonomikoetarako Zerbitzuko buruak 2019ko ekainaren 24an txosten bat egin du Nafarroako Parlamentuko lehendakariaren 2019ko ekitaldirako ordainsariei buruz.

Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduko 37. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Lehendakariaren Estatutuan ezarritakoari jarraituz, ERABAKI DA:

1. Ezartzea 2019ko uztailaren 1etik aitzina Nafarroako Parlamentuko lehendakariak jasoko dituen ordainsariak, Legebiltzarreko Mahaiak

2003ko abenduaren 30ean onetsitako irizpideak aplikatuz.

2. Lehendakariaren ordainsariak finantzatze aldera egin beharreko gastu guztiak baimentzea, 2019rako Legebiltzarreko aurrekontuaren kargura egingen direnak.

3. Onestea ezen lehendakariaren urteko ordainsari gordina 71.941,66 eurokoa izanen dela, 2019ko uztailaren 1eko ondorioekin.

4. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta webgune ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

